

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Urederraren Sorburua izan zen 2017an Nafarroako esparru natural bisitatuena, 150.000 pertsona erakarri zituelarik

Bertizko parke naturalak 89.584 bisita jaso zituen, 2016an baino % 6 gehiago

Astelehena, 2018.eko maiatzak 7

Urederraren Sorburua izan zen 2018an Nafarroan bisitari gehien erakarri zuen esparru naturala: 150.000 pertsona, guztira. Bestetik, [Bertizko Parke Naturalak](#) 89.584 bisitari bildu zituen, 2016an baino % 6 gehiago. Horiexek dira, joan den astean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizalderen gidaritzapean egindako urteko bileretan, Bertizko Parke Naturaleko eta [Urbasa-Andia Parke Naturaleko](#) patronatuek emandako datuetako batzuk.

Bertizen, bisitari kopururik handiena abuztuan jaso zen (16.018), baita apirilean, uztailean eta irailean ere (11.000 bisitari hilabete bakoitzean). Jatorriaren arabera, bisitari gehienak Nafarroakoak (% 18,10) eta Euskadikoak (% 18) izan ziren, eta horien atzetik kokatu ziren Aragoikoak (% 3,28), Frantziakoak (% 2) eta Errioxakoak (% 1,29). Gainerako bisitariak beste autonomia-erkidegoetatik etorritakoak izan ziren. Horren harira nabarmendu behar da azken lau urteotan bisitak % 35 gehitu direla.

2017an egindako ekintzei dagokienez, hobekuntza-lanak egin ziren haur-parkean, hide bat sortu zen, lorategi historiko-artistikoaren gida-mapa argitaratu zen, udako kanpalekua antolatu zen eta pasabide bat ezarri zen aparkalekutik informazio-guneraino. Gainera, ihartutako zuhaitzak kentzeko lanak egin ziren, lorategiaren trinkotasuna arindu zen, adar arriskutsuak moztu ziren, heskaiak inausi ziren eta bideak garbitu ziren. Hide-aren kasuan, Markategi aldean kokatu zen, parkearen ondare ornitologikoa sustatzeko eta ingurumen arloko hezkuntza-eskaintza osatzeko. Jardueren osagarri gisa, margolan nahiz argazkien erakusketak eta bestelako ekitaldiak antolatu ziren.

2018an, baratzea finkatu eta informazio-panela eraikitzea aurreikusi da, "orangerie" eremua berreskuratuz, kaperako pergola konpondu eta Maumejean-eko beirateak instalatzeko lanak bukatuz, lakuko uharteko lorategia leheneratuz eta basoari buruzko gida-mapa argitaratuz, besteak beste.

Urbasa-Andia Parke Naturala

Urbasa-Andia Parke Naturala Urbasa eta Andia mendilerroek, Ameskoako Limitaciones mendiak eta Bakedanoko herri onurako mendian

kokatuta dagoen Urederraren Sorburuko Erreserba Naturalak osatzen dute.

Bisitari kopuruari dagokionez, Urederraren Sorburuak 150.000 bisitari inguru erakarri zituen, 2016an baino zertxobait gutxiago, baina hala eta guztiz ere, Foru Komunitate osoko esparru natural bisitatuena izaten jarraitzen du. Urbasan, uztailean eta abuztuan, 40.000 bisitari baino gehiago egon zirela kalkulatu da.

Abeltzaintzari dagokionez, 2017an 40.000 abelburu igo ziren Urbasara eta Andiarra: 370 ustiategi baino gehiagotako 32.000 ardi, 3.500 zaldi eta 4.500 behi inguru. Aurreko urteetako joera hautsiz, azienta larri gutxiago eta ardi gehiago bildu dira. Horren harira gogoratu behar da 2018aren hasieran [Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren ziurtagiriari](#) (NNPEK) atxikitako larreetarako izena emateko epea bukatu zela.

Oihangintzaren arloan, 2017an, Urbasa Mendilerroaren baso-antolamendurako proiektuaren berrikusketa bukatu zen, eta luze gabe, Amekoako Limitaciones mendiaren antolamendua egiteari ekingo dio erakunde titularrak. Parke osoan, ia 16.000 metro kubiko pago-zur saldu ziren; den-denak PFEC sistemako baso-kudeaketa iraunkorren ziurtagiriarekin, eta FSC ziurtagiriarekin ere, Urbasaren kasuan.

Ingurumenari dagokionez, florako nahiz faunako espezie nagusien jarraipena egiten jarraitu zen (bereziki hegaztiena, baita ugaztun batzuen ere), eta anfibio-narrastiei buruzko berariazko ikerlana egin zen.

2018ra begira, inbertsio gehiago eginen dira bide-azpiegiturak hobetzeko, sastrakak kentzeko, itxiturak eta soildurak egokitzeko nahiz zenbait putzu eta askatan udan ura egongo dela bermatzeko eta behi-tuberkulosiaren kutsadura-guneak kentzeko egin behar diren aldiak aldiko lanak bideratzeko.

Basogintzaren arloan, markatutako zur-bolumena urteko 1.000 metro kubikora handitzea aurreikusi da, Urbasa-Andia mendietako Antolamendu-Proiektuaren Berrikusketan ezarritako aukera berriaren arabera.

Urederraren Sorburuko Erreserba Naturalean hainbat inbertsio aurreikusi dira bisitarien etorrera handiak balio ekologiko handiko ingurune fisiko honi eragin diezaiokeen inpaktua murrizteko asmoz.